

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko apirilaren 13a

Egunkaria

Gehigarri honetan

**Lekunberri** • Bisitariak naturguneak zaintzeko jarraitu beharreko hamar puntuko gida kaleratu du Plazaolak  
**Eva Mendia** • Pirinio Fundazioan hurren bitartez gizarte osoa hezi nahi dugu”

## Lizarra Hip-Hop Krew

Hip-Hop mugimendua, kultura edo dena delakoa hirietan izaten da, eta, horregatik, Nafarroan Iruñe inguruan nabari da batez ere grafitigileen, break dance dantzarien eta rap kantarien lana. Lizarran hip-hop kultura sustatu nahian dabilta batzuk. Gutxi dira, egiaren errateko. Lizarra Hip-Hop Krew taldean bi grafiti idazle aritzen dira, hiru rap kantari eta Iruñeko DJ bat. Mundu horretara jende gehiago erakartzeko, hip-hop jaialdia erraldoia antolatu dute gaurko Lizarran.




• MIKEL SAIZ

# Lekunberri Natur eremuak zaintzeko gida

Plazaola Patzuergo Turistikoak eta Orgi Hariztiko arduradunek hainbat aholku bildu dituzte bisitariarentzat kaleratu berri duten gida batean. Mezu eta marrazki zuzenen bidez, bisitarien aldarrean eragin nahi dute.

Bisitariak naturguneak zaintzeko jarraitu beharreko hamar puntuko gida kaleratu du Plazaolak



Hamar mezu eta marrazki zuzenez osatutako gida atera du Plazaolak, bisitariak ingurua eta bertako bizimodua errespetatu dezaten.

● ELI BELAUNTZARAN

ASTE SANTUKO OPORRAK bertan direla eta, Plazaola Patzuergo Turistikoaren arduradunek, Orgi Hariztikoekin batera, gida berezi bat aurkeztu dute. Aurkezpeneko ekitaldian izan ziren Ina Soravilla, Patzuergoko lehendakaria, Eduardo Gonzalez, Orgiko zuzendaria, Ignacio Elorrieta, Ingurumen Departamentuko zuzendaria, eta Gorka Gorospe, gidako marrazki egilea.

Gida honetan bilduak daude, bisitariarentzat, hamar mezu eta marrazki bidezko beste hainbeste aholku. Eduardo Gonzalezek azaldu zuenez, Europa osoan ez omen da aurkitzen horrelako gidarik; landa turismoa oso landuta dagoen herrialdeetan, hala nola Suitzan edo Frantzia, mendiko bideak zeharkatzeko, atakak ixteko eta zakurrekin mendian ibiltzeko aholkuak biltzen dituzten antzekoak daude.

Bisitarien jokaera kontrolatzeko ez da deus aurkitzen, eta horregatik Orgi Hariztiko arduradunei interesgarri iruditu zaie gida plazaratu aurretik egin duten lan guztiaren berri ematea. Gonzalezek erran zuenez, Larraun, Ultzama eta Lekunberri



Natur eremua zaintzeko bisitariarentzako aholkuak

inguruko baserritar, mendizale eta ostalaritza arloan aritzen diren lagunekin mintzatu dira eta turistaren etorreraren inguruko kezka nagusiak islatzen saiatu dira. Badirudi herrietako biztanleen artean hainbat ideia nahasi zabaldu direla turismoaren in-

guruan, eta baikor da bildutako datuekin arazo horien berri izan eta aurre egiteko.

Gidaren egileek haxe gogorazi nahi diete Nafarroako mendialdeko herriak ezagutzera etortzen diren bisitariari: ingurua garbi gorde behar dela, sua toki baimenduetan bakarrik egin daitekeela, natura eta kultur ondarea errespetatu, ura garbi zaindu, basoko fruituak neurritz bildu, nekazari bizitza eta herritarren lana errespetatu, bide publikoetatik ibili, txakurra beti kontrolpean izan, atakak itxi eta arretaz gidatu behar dutela herri eremu eta inguruetan, bertakoen bizimodua ahal den neurrian betikoa izan dadin.

Mezua zuzenean eta argi azaltzen da gidan, eta, hitzak gutxi balira ere, marrazki bikain batzuekin apaindu dute lana. Gorka Gorospe da egilea, eta haxe adierazi du: «Irudiak egiteko, bost laguneko lan taldea osatu genuen, eta hiru hilabete behar izan ditugu lana aurrera ateratzeko; dena den, gustura gaude emaitzarekin». Marrazki ulergarriak egin nahi izan dituzte, Gorkak dioenez. Azken batean, «guraso eta umeentzat prestatuak dira, eta, horregatik, umorez eginak; atentzioa eman nahi genuen, baina mezu serioa zabalduz».

→ Eli Belauntzarán

## Baztan-Malerreka

### Asteburuan hasiko da XXII. Laxo Txapelketa

ASTEBURUAN HASITA, ABUZTUAREN 5a bitarte, XXII. Laxo Txapelketa jokatu da. Kirol hau antzinakoa bada ere, Baztan eta Malerrekan baino ez da jokatzen gaur egun. Laxoa Elkarteak antolatua, 12 talde ariko dira lehian. Poliki-poliki kirol hau eskualdean zabaltzeko ahaleginean dira.

Igandean, apirilaren 15ean emanen zaio hasiera txapelketari. 12 taldeak bi multzotan banaturik ariko dira lehenbiziko fasean, eta bakoitzak bere plazan jokatu ditu partidak. 12 talde horietatik 4 Doneztebekoak dira, 3 Iruritaokoak, Oitzekoak eta Arraiotzekoak bina, eta Elizondokoa bat. Lehenbiziko fasean multzo bakoitzeko taldeek euren artean jokatu dute guztiak guztien kontra, ligaxka moduan. Multzo bakoitzeko lau talde onenak sailkatuko dira hurrengo faserako, eta horiek final-laurdenak jokatu egingo dira. Lehenbiziko fasea ekainaren 24a bitarte jokatu da, eta final-laurdenak, berriz, uztaileko lehenbiziko bi asteburuetan. Finalerdiak hurrengo bi asteetan jokatu dira, eta final nagusia abuztuaren 5ean, igandearekin, Elizondoko plazan.

Aurten joan den urteko talde kopurua gaintzea lortu dute antolatzaileek,

eta orotara 12 izanen dira parte hartuko dutenak, tartean bi talde lehenbiziko aldiz plazaratuko direnak, 17-18 urteko gaztetxo osatua.

→ Jon Abril

## irulegitik

JOJO BIDART



Joan den martxoan iragan diren Kontseilu Nagusiko eta herrietako hauteskunde ondotik, Hautesi Abertzale elkartearen lehen bilkura egin da berriki Heletan. Aspaldidanik ezagutzen genituen politikariari Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdiko hautetsi berri franko juntatu dira, elkarte gaztetuz eta berrindartuz.

Azken hauteskundeek abertzaletasuna ezin baztertuzko indar politikoa bihurtua zela ederki erakutsirik, garrantzi handiko bilkura igurikatua zen, bereziki ikusteko nola konpon zitezkeen jokamolde hain desberdinak hautatu zituzten hautetsiak. Zerrenda abertzaleak, zerrenda irekiak, koalizioak zentristekin Miarritzen eta

## Hegoaldeko dinamika

Angelun bezala edo sozialistekin Hendaian bezala, denetarik ikusi dugu. Ondorioz, hautetsi abertzale gehiago baina egoera politiko arrunt ezberdinetan daude.

Herri bakoitzeko egoerak sortu dituen berezitasun lokalak eta Iparraldeari begira eramatearen proiektu komunak nola bateratu?

Hautetsi abertzaleen koherentzia nola bil?

Handitzen ari diren hiri eta odolusten ari diren herri tipien arteko elkatasuna nola sortu?

Galde horiek guztiak ziren mahai gainean eta merezi zuten barnatuak izatea, baina gai batek ditu beste guztiak tapatu: Hegoaldeko zatiketa egoeraren gestioa Iparraldean. Bortizkeria eta Udalbiltzari buruz EAJ alder-

diak pausatu bi baldintzak baztertuak izan dira, hautetsi abertzaleen tendentzien arteko gutienezko adostasuna ez hausteko. Hala ere, bilkuren hiru laurdena eztabaidagai horren erdian murgildu da, eta ez zuten holakorik espero hautetsi berri gehienek, ez eta besteek.

Bere baitako dinamika ukaiten ahal ote du Iparraldeko abertzale mugimenduak? Ala gero eta fermukiago estekatua izanen da Hegoaldeko estrategia eta bulego erabakitzaileeri?

Herri eraikuntzarako bide hoberik ez ote dea?

Ez dira galde berriak, baina sekula bezalako indarrekin pausatzen dira gaur egun, eta alderdi abertzale guztiak dira hunkituak.

# Lizarra •

## Zuraren arima arakatzan



ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

Takahiro Kitamura artista japoniarra berriro ere gurera etorri da

**Urtero legez, udaberriarekin batera Lizarrara etorri da Takahiro Kitamura artista japoniarra. Bortzgarren urtez etorri da gurera, eta hilabete bat eman du bertan zuraren inguruko ikasketetan sakontzen.**



Karmelo Boneta eta Takahiro Kitamura eskultoreak Lizarran, japoniarraren eskultura baten ondoan. • KRISTINA BERASAIN

**T**AKAHIRO KITAMURA 1997. urteko apirilean etorri zen aurrenekoz Lizarrarat. Ikeda Munehiro bere lagunak, ttipi-ttapa, Donejakue Bidea egin zuen urtebete lehenago. Japoniara itzuli zenean hemen ikusitakoaz mintzatu zitzaion Takahiro; hots, elizetako harriez, erromaniakoaz, paisaia berdeez, lasaitasunaz... eta, batez ere, bidean ikusi zituen zenbait eskulangilek egindako lanaz.

Takahirok izugarri maite ditu artearen adierazpen guztiak, eskultura batez ere. Horregatik, Tokio utzi eta milaka kilometro egin ondoren, Ega ibaiak zeharkatzen duen hirirat ailegatu zen. Zura lantzen duten eskulangileak ezagutzea zuen xede nagusia. Horrelaxe ezagutu zuen Lizarran Karmelo Boneta zurgin ospetsua. Hiru hilabetez aritu zen Bonetaren lantegian, hark egiten zuen lanari so: zein lantresna erabiltzen zituen, erremintari non eta nola ematen zion mailukada, egur mota bakoitzaren berezitasunak... «Eskulangileek zura lantzeko erabiltzen duten teknika nire herrialdean baino askoz ere garatuagoa dago hemen», azaldu du Takahirok. «Japonian bertzelako lehengaiak erabiltzen dira artearen euskarri gisa; esaterako, eskulturan brontzea erabiltzen da batez ere».

Lizarrarat etorri den bortz urte hauetan, hemengo artisauen lana berregiten ere saiatu da artista japoniarra. Baina hori ez ezik, bere ibilbide berezia ere aurkitu

du zura lantzeko garaian, eta aunitz eskultura egin ditu hemengo zurgileen tradizioa eta bere sormen naturala uztartuz. Hurrengo urtean berriro bueltatuko da gurera; lan guztien erakusketa ere egin nahi du Euskal Herrian.

Takahiro 1931. urtean jaio zen, Tottori hirian, eta bertako unibertsitatean Arte Abstrak-

tuan doktore izendatu zuten. Urteetan Arte Ederretako irakaslea izan da Tokioko Unibertsitatean, eta bere lurraldean sari aunitz jasotzen ditu. Japonia eta Euskal Herria erabat ezberdinak dira bere ustetan, eta Lizarra bihotzean duela dio. «Nire bigarren herrialdea da herrixka hau. Hemen orka ederrean bizi dira antzinako-

tasuna eta gaurkotasuna; oso agerian dago hori bertako eraikinetan. Jendea ere oso atsegina da», aipatu du. Dudarik gabe, Takahiro oso erraz ohitu da hemengo bizimoduarekin, eta dagoeneko txapel eta guzti ibiltzen da karriketatik barrena.

→ Kristina Berasain

### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Paper birziklatua eta sukaldaritza

Burlatako **Axular** aldizkariak gomendio interesgarri bat eman die irakurleei bere azken zenbakian: «Aukeratu ongi zure papera», dio argitalpenak bere orrialdeetan jasotako artikuluetako batean. Paper birziklatua erabiltzeko dituen onurak aztertzen dituzte **Axular**rekoek: «Nafarroan urtero pertsona bakoitzak 70 kilo inguru paper gastatzen du, eta kilo bat paper sortzeko bi kilo egur behar dira. Baina paperaren ekoizpenean ez da soilik egurra erabiltzen, energia eta ura ere neurri handitan behar dira, bai eta koloregai eta lixiba go-

gorren erabilera ere». «Paper ekologikoaren ekoizpenean, lixiba eta produktu kimikoen erabilera baztertzen dutenez hauek sortzen duten kutsadura desagertzen da. Paper birziklatuaren lehenengo abantaila hondakinen murrizketa da, Zuhaitzak salbatzeaz gain pinu eta eukaliptuen monokultiboak ere murrizten da, eta gauza bera gertatzen da ur eta energia kontsumoarekin».

Bestalde, Burlatako Ibaialde ikastetxean sukaldaritza ikasteko aukera dagoela gogora ekartzen du **Axular**rek azken zenba-

kian, eta hango ikasleen iritziak jasotzen ditu: «Sukaldaritza ikastea erabaki dugu betidanik gustukoa izan dugulako. Hau gure lehenengo urtea denez bakarrik lehenengo platerak eta postreak egiten ikasten dugu. Bigarren urtean, plater zailagoak egiten ditugu, ehiza, adibidez. Etxean normalean amak segitzen du bazkaria prestatzen, askotan gure errezetak eskatzen badizkigute ere. Baina elkarte batera joanez gero eta lagunak sukaldaritza ikasten ari zarela enteratzen badira, badakizu nori egokituko zaion sukaldaritzaren aritzea, ezta?».

### Energia

Tabernan ginela, Bexikulasek: «Lehenago adiskide batek lurzoru gainean zutik egon arren zorua ez dugula ukitzen esan zidan. Kontua da —azaldu zidan—, gure zapaten azken molekula zoruaren lehendabiziko molekularen kontrako indar bat egiten ari dela, eta hein batean behintzat, gizakiok indar horren gainean lebitatzen edo gabiltzala gehitu zuen; tira!, ez dugula lurra zapatekin ukitzen ahal ondorioa iritsi zela alegia, eta ni, noski, barre egin nuen: erreallitatea zeharo miresgarriagoa eta ulergaitzagoa baita. Azken batean, zapataren azken elektroia eta zoruaren lehendabiziko elektroia zehazki zeintzuk diren jakiterik ez baitago eta, are gutxiago, bien artean dagoen indar hori norena ote den jakitea. Are gehiago, eta ez dakit zein era guztiz arbitrarioa erabiltzen 'elektroi hau zapatarena da eta beste hau zoruarena' esango bagenu ere, ezinezkoa izango zitzaigun bi elektroien artean dagoen distantziaren erdia ezagutzea. Hau da: ezinezkoa izanen zitzaigun 'hemen dago zapata eta zoruaren arteko muga' esatea. Distantzia horretan etengabe ari baitira azpipartikulak sortzen eta desagertzen, inorenak ez diren partikulak, indarrak eragiten dituztenak, energiaren egoera desberdinak besterik ez direnak. Eta Einsteinek hori modu garden batean ikusi zuen, guk bi ron beltz hauek ikusten ditugun modu berean, eta horregatik 'Energia besterik ez dago' esateko aukera izan zuen. Ez baitago isolatutako materiarik, ez baitago gorputz baten azken elektroirik. Dena da continuum bat, etenik gabeko energia jarraia. Gure zapatak, azken finean, elkar eragiten duten energiaren egoerak besterik ez dira. Eta, kasu, zeren inorekin elkar eragiten ez duten partikulak ere badira! Pilo bat! Eta agian gehienak horietatik dira. Egingo dizut esku joko bat, benetakoa magia». Eta ukabilak erakutsi zizkidan orduan, magoan antzera, bueltaka, ezkutuan inongo kartarik ez zuela adierazteko, dena nire begien aurrean egingo zuela azaltzeko, magia benetakoa izango zela, gardena, inongo trikimailurik gabea. Eta eskua ireki zuen nire bi begien azpian, eta segituan itxi eta gero esan zidan: «Segundo horretan eta esku honetatik sei bilioi neutrino igaro dira inongo atomorekin inongo erlaziorik gabekoak. Energia. Ez dago besterik» •

# Lizarran graiti



Iruñean grafiti maila handia dagoela diote. Irudian, SIE grafitigilea ageri da, Donibane auzoan murala pintatzen. ● JOXE LACALLE

## Hip-hop jaialdi erraldoia egingen dute gaur Lizarrako kiroldegan

**Iruñea ez da New York eta Lizarra ez da Iruñea. Hori argi. Eta hala eta guziz ere, Lizarran hip-hop kultura sustatu nahian dabilta batzuk. Gutxi, egiaren errateko. LHHK taldean bi grafiti idazle aritzen dira, hiru rap kantari eta Iruñeko DJ bat. Mundu honetara jende gehiago erakartzeko, hip-hop jaialdia antolatu dute gaurko Lizarran.**

Lizarra Hip-Hop Krew taldeko arima Nerea Domenech da, 19 urtekoa, grafiti idazlea eta rap kantaria, biak batera. RAIT jarriz sinatzen du, eta izenaren ondoan beti egiten du neskato baten irudia. «Ustez neure buruaren irudia da, baina ez du nire antz handirik», dio.

RAITek Lizarrako karriketan ikusi zituen bere lehen pintadak, eta horrekin liluratu zen. «Hasieran soilik zirriborroak egiten nituen, Lizarran ezin delako pintura lortu», esplikatu du. «Gero jakin nuen Iruñean non erosten ahal nuen. Eta duela urtebete edo hasi nintzen nire lehen lanak egiten». Une berean rap errimak egiten hasi zen, eta Mallorcara egin bidaia baten ondoren musikaren munduan sartzen hasi zen. «Orain talde asko ezagutzen ari naiz, hasia naiz Madrillgo lagun batzuekin kolaborazioak egiten, eta hemen Lizarran LHHK taldearekin kantatzen dut».

### Iruñea da erreferentzia

Nafarroan, Iruñe inguruan biltzen da hip-hop mugimendua. Grafiti sinadurak nonahi daude, eta marrazki handiak ugaltzen ari dira. Eta erran behar da geroz eta marrazki ederragoak egiten ari direla. SIE Iruñeko grafitigileak dienez, Iruñea erreferentzia puntua da grafitiari dagokionez. Bertako talde bat, VFC, talde handia da dagoeneko,

eta bere eragina beste zenbait hiritara zabaldu da (Bilbo, Irun, Zaragoza). Grafitia, berez, nahiko kontu individualista da, norberaren izena ahalik eta gehien idaztea baita oinarria. Baina taldea arunt garrantzitsua da, SIEk komentatu duenez. Eta VFC taldeak FCC taldearen kontra borrokatu behar du. Fomento de Construcciones y Contratas (FCC) enpresak Iruñeko paretak garbitzen ditu, eta Udalaren aginduz, azkenaldian, pintada politikoak ezetik, grafitiak ere ari dira jo eta ke ezabatzen.

Eta Iruñean borroka latza baldin badago, Lizarran manto soago doaz gauzak. Lizarratik bueltaxka ematea nahikoa da ikusteko paretetan ez dagoela grafiti anitz. «Lizarran grafitia gaizki dago», erran du RAITek. «Duela lauzpabost urte grafiti talde bat sortu zen, bost edo sei lagunekin. Baina talde horretatik bi lagun besterik ez dira gelditzen Lizarran, eta ez dute pintatzen. Badirudi orain hasiko direla berriz. Gainera, Lizarran bazegoen Septimo Sello izeneko talde bat, eta horrek lanak hondatzen zituen. Pintura botatzen zuten gainetik. Horregatik utzi zitzaion Lizarran grafitia egiteari». LHHK taldea etorri arte, berderen.




### Lizarran hip-hop kultura ezagutaraztea

Lizarran hip-hop kultura ezagutarazteko jaialdia antolatu du gaurko LHHK taldeak. Ideia, noski, RAITena izan zen. Eta aprobetxatuz jende anitz ezagutzen zuela, jaialdia antolatzen hasi zen Eguberri aldera. Izan ere, hip-hop mugimenduan ibiltzen direnen ezaugarrietako bat mugimendua da. Leku batetik bestera ibiltzen dira euren gisakoekin bila. «Ezagutzen nituen taldeekin hizketan hasi nintzen, Mallorcako nire lagunekin», azaldu du RAITek. «Baiezkoa eman zidaten. Etorriko dira eta eurek ordainduko dute bidaia. Hori lortu eta gero, talde handietara jo nuen. Payo Malo eta Violadores del Verso lortu genituen». Denetara, hamabi musika talde, hiru DJ, bi break dance talde eta zazpi grafitigile ariko dira gaur Lizarrako kiroldegan, 12:00etan hasita. Azoka eta taberna ere izanen da, eta sarrerak mila pezeta (40 libera) balio du.

Lizarrako Udalak jaialdia kiroldegan egitea utzi du, baina ez du diru laguntzarik eman. Lizarrako

Tengo la menteminada de rimas /  
Firmas perdidas las esquinas /  
Los grados de pop se me clavaron copinas /  
Los quiero grasus cuatro vidas

(Nire gogoarimik kutsatuta /  
Txoko guzietadurak galduta /  
Hip-hop graduatzen gisara sartuta /  
Lau bizitzei eskiditut maitatuak)



## Hip-Hop Jaialdia Lizarran

● Ostirala 13 kiroldegan ●

### GRAFFITI (12:00)

SIE (Iruñea)  
MIND (Iruñea)  
RAIT (Lizarra)  
SYR (Donostia)  
TASIZ (Mallorca)  
VORE (Mallorca)  
IMO (Logroño)



### BREAK DANCE (16:00)

Lunatics (Bartzelona)  
LCK (Iruñea)

### RAP (17:00)

Los Violadores del Verso (Zaragoza)  
El Payo Malo (Terrassa)  
Ambos Lados (Mallorca)  
Vieja Usanza (Mallorca)  
MC Enimma (Mallorca)  
TDC (Mallorca)  
Extracomunitarios Nacionales (Tarragona)  
Aires de la Rivera (Logroño)  
Xtrem, Dead Man & DJ Otxoa (Logroño)  
Inventario (Iruñea)  
Nervio Turbio (Iruñea)  
LHHK (Lizarra)



### DJak

SYR (Donostia)  
DZ (Donostia)  
DJ Otxoa (Logroño)

tabernek eman dute laguntza hori. Gastuak ordaintzeko 1.500 lagun biltzea behar dute. Badakite kanpoko jende asko etorriko dela, baina bertakoak ere animatzea ez legoke gaizki. «Dena dela, kontua zen Lizarran hip-hop kultura bultzatzea, eta hori lortu egin dugula uste dut», gaineratu du RAITek.

Erran bezala, Lizarran apenas dagoen grafitirik. «Orain arte oso jazarririk egon da. Duela guti zubia inauguratu zuten, Irungo batzuek etorri eta sinadura batzuk egin zituzten. Eta kristorena sortu zen. Eta gu Udalara joan ginenean erranez grafiti jaialdia egin nahi genuela, hori aurpegiatu ziguten. Azkenean jaialdia egingen dugu, eta espero dut hona etortzen direnek erakustaldiko paneletan bakarrik pintatzea. Izan ere, hurrengo urtean bigarren jaialdia egingo nahi dugu».

→ Asier Azpilikueta



Nerea Domenech (RAIT) LHHK taldeko grafitigilea da. Gaztea da, eta kementsua. Eurek antolatu dute gaurko jaialdi handia. ● MIKEL SAIZ

## Sie, Iruñeko grafitigilea



### «Grafitiaren kontrako errepresioa alferrik da»

Iruñeko Donibane auzoko grafitizalea dugu SIE, 23 urtekoa. Gaztea izanagatik, SIE Iruñeko grafiti mugimenduko veteranoa da. Mugimendu hori SIEren gisakoa da, gaztea eta indartsua. Eta hori zenbaitzuei ez zaie gustatzen.

■ Badirudi asteotan grafitiak jazarpen handiagoa izan dela, eta aurrera begira, Iruñeko

Udalak pintadak garbitzeko diru saila 30 milioi pezetatik 70era igoko duela. Zer iruditzen zaizu hau guziaz?

Logikoa iruditzen zait. Zikinkeria handitzen baldin bada, normala da garbitzeko baliabideak ere ugaltzea. Hau hiritar bezala erratan dizut. Aldiz, grafiti idazle bezala erranen dizut hori guziaz alferrikakoa iruditzen zaidala. Gure kontrako errepresioarekin ez doaz inora. Leku batzuetan «molestatzen» ez bada —eta saiatzen badira gune libre horietatik pintadak ezabatzen—, lortzen duten bakarra da grafitigileak gehiago «molestatzen» duten beste leku batzuetara joatea. Azken finean, pintadak guti irau behar badu, behintzat irau dezala ongi ikusten den toki batean.

■ Eta isunak ugaritu egin dira.

Bai, eta pintatzeko arazo gehiago dago. Orain murrutik pintatzeko ez da nahikoa murrutaren jabearen sinadura izatea. Udalera joan behar duzu eta zenbait paper betet. Burokrazia hutsa. Baina horrek ere ez du deustarako balio, nahi dutena egiten baitute gero. Niri gertatu izan zait Udaleko baimena izatea, murrutik pintatzea eta ondoren eurek garbitzea.

■ Entzuna dizut grafitia artea ez dela.

Hor bada eztabaida, baina nik ez dut arte bezala ikusten. Nire izena idaztea da, kito. Noski, grafitia kultur mugimendu baten baitan dago. Eta mugimendu hori hazten ari da, bere garapena izan du, izena errotulagailu batekin idazte soiletik egungo ordenagailu teknika aurreratuetara. Baina ez dut uste grafitia ikuspegi artistiko-piktoretatik aztertzen ahal denik, ez da arte kritikari batek azter dezakeen margolana.

■ Hortaz, zergatik mantendu behar dira grafitiak?

Horretarako ez da motiborik behar. Zergatik mantendu? Niri gustatzen zaizkidalako.

■ Eta zuk zer duzu nahiago, murrutik legaletan pintatu ala bonbardaketa egin?

Niri pintatzea gustatzen zait. Eta gehiegiz konplikatu gabe egiten ahal badut, hagitz ongi. Baina konplikatu behar badut, orduan ere hagitz ongi ere. Akaso, puristagoa; «errealagoa»; da gauzez ateratzea eta ilegalki pintatzea. Baina batzuetan ihes egiteak gogaitzen du. Eta biltzen da beste modu batean pintatzea.

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Julian Felipe eta 'El Eco de Navarra'

Julian Felipe etxarriarra *El Eco de Navarra* egunkari iruindarraren bigarren jabea izan zen 1895etik; gustatu baino urriagoa izanagatik ere, kazeta honek 1912an euskarari eskeini zion tarte Feliperi zor diogu neurri handi batean.



Julian Felipe Pérez -kasu, Felipe abizena da- 1855eko otsailaren 17an sortu zen Etxarri-Aranatzen. Aitaren aldetiko sendi erroak Erriberakoak zituen, Donamartiri-Unx, Andosilla, Carcar eta San Adriangoak hain zuzen. Amarenak, berriz, Iruñea eta Etxarri-Aranazkoak. Aitak Etxarriko maisuarena egin zuen 1851z geroz, baita bertako idazkari ere 1869tik, aurreko idazkaria hauteskundeetan iruzurrik egiteagatik kargugabetu ondoren. Etxarrin 1871ko urtarilerara arte iraun zuen, handik Azkoienara berriz ere maisu joateko. Horrek ez zion semea-ri eragotzi, alta, geroago urdiaindar batekin ezkontzea; izan ere, Benita Goikoetxea Lopez-Zubiriarekin esposatu baitzen.

Felipe jaunak zuzenbide ikasketak burutu zituen Madrilén, abokatu titulua 1882ko otsailaren 2an eskuratu zuen, eta urte bereko ekainean Santandereko Lierganesko notaritza bere egin zuen. Euskalduna izanki, etxera nahi zuen, eta Donostiako zein Leitzako notaritzen oposaketerako aurkeztu zen, eta hurbil ibili arren, ez zen, tamalez, ez batean ez bestean gailendu. Guztiarekin ere, eta berebiziko azterketak igaro ondoren, Nafarroako Diputazioaren idazkaritza erdietsi zuen, eta Beremundo Ruiz-Galarretaren ostean, idazkari kargua mustu zuen 1885eko uztailaren 30ean, hartan 1895eko ekainaren 1era arte iraun zuelarik.

Idazkaritza uzteko Felipek izan zuen arrazoia zera izan zen: *El Eco de Navarra* egunkaria erosi zuen, gorteetarako diputatu izatea helburu ezkutuztat zuela nonbait. *El Eco de Navarra* 1876ko urtarrilaren

5ean ateratzen es-treinakoz. Hasi-rra hartan pape-rra biastekaria zen, baina 1877ko apirilaren 29az geroz egunkari bilakatu zu-ten. *El Eco*-ren jabeak Pedro Ribed eta Nikanor Espotz ziren, bigarren hon-ek, gainera, zuzendariarena egiten zuelarik. Beti ere egun- kari independientetzat aurkez- tu zen, eta horrek, agintariekin zein beste komunikabide zen- baitekin hamaika arazo eta tira-bira izatera eroan bazuen ere, salmenta ederrak erakarri zizkion, XIX. mende bukaeran Nafarroan gehien saltzen zen egunkaria izan zelarik. *El Eco*- rako lan egin zutenen artean honakoak aipatu beharra dago: Jose Bizente Berazaluze, Leonardo Cayuela, *El faro escolar* zuzentzen zuen Pedro Díaz Muñoz, «Licenciado Vidriera» sinatzen zuen Santiago Grassa, Octaviano Mir Mata, Gervasio Etayo, José Pérez-Eulate, eta administratzailea zen Julián Elizondo Osaba. Julian Felipe egunkariaren jabe berria egin ondoren hurrengo aldaketa gar- rantzitsua 1898an etorri zen, Espotzek utzita, zuzendaritza Berazaluzeren eskutan geratu zenean. *El Eco de Navarra* ren azken zenbakia 1913ko ekain-aren 29an ateratzen zen, eta harrez geroztik, *Diario de Navarra*- ren batu zen, esparru berean asmo bertsuekin mugitzen zen egunkari berriarekin ezin lehia- tuz.

baina, itxuraz, euskararekiko erakutsi zuen jarrera ez zen kontrakoa. Feliperen eragina ere zerbait nozitu ote zen. Campionek, *El Eco*-n berean, Esainen euskal *via crucis*aren



harian Garcilasori egini-ko gutun batean zera zioen 1910ean:

«El elemento vascón en Pamplona es mucho más numeroso de lo que a primera vista parece. En él se cuentan personas de distinción y viso, además de otras muchas de la honrada clase popular». Lehenengoan artean Julian Felipe aipatu zuen beste izen haundimaundi batzuekin batera. Hortaz, ez gaitu harritu behar 1912ko urriaz geroz euskaraz izkiriaturiko zutabe txi- kerra argitaratzen hasi izanak. Beraz, saila izenik gabe lehen- dabizi, eta «Eguneroko berriak» izenburupean geroa- go, hainbat kolaborazio hasi ziren agertzen Feliperen egun- karian. Egile izenik gabe ater- tzen baziren ere, gauza jakina da idazlea Saturnino Ibarrola iruindarra zela. Horretarako, berak *Diario de Navarra*-n agerturiko idazki gutxi batzuk ikuskatu baizik ez da egin behar. Izan ere, Ibarrolak era- bilitako euskara ereduia ez bai- tzuen beste inork erabili inguru hauetan, bada, Ibarrola garbi- zale sutsu izan baitzen, garbi- zale...



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñean anitz dira zahatoak saltzen dituzten souvenir dendak.

• OSKAR MONTERO

### Souvenir

ASTE SANTUAN IRUÑERA ETORRI- tako turistek, etxera berriz buel- tan joan aurretik, gure hiriarren oroigarriak erosi nahi izaten di- tuzte. Hona hemen zenbait aholku. Zerrenda ez da luzea. Izan ere, gurea hiri txikia da.

Udal baranda puska bat, hiri-ko armarría, udaletxeko irudia eta Gazteluko plazako kiosko bat eramateko aukera dago. Urrezko zintzilakkarri tipikoak 10.000 pezetatan saltzen dira. Bestetik, «Iruñeko» izeneko txorizoa mundu zabalean ezaguna da. Tokirik tipikoena eros- teko Udaletxe Plazako Casla Etxea da. Bertan, zintzilak ager- tzen dira aitzinaldean. Txorizo- ari laguntzeko, ahuntz larruz eginiko zahatoa da edozein edari fresko mantentzeko ontzi- rik hoberena. Marka ezagunena «Las tres ZZZ» da. Prezioari da- gokionez, 1.500 pezetatan sal- tzen dira Komedia kalean da- goen Etxarri dendan.

Gozozalea izanez gero, Laya- na dendako pastak dira Iruñeko tipikoenak. Egunero egiten di- tuzte eta Calceteros karrakako dendan eros daitezke. Kilo bate- ko kutzak 1.000 pezeta balio du. Horretaz gain, kafesnezko kara- meloak dituen kutxa erosteko Zapateria kalera jo beharko du- gu. «Las dos cafeteras» izeneko- ak dira ezagunenak, eta Klaudio Lozanoren alabek kafea eta gu- rinarekin egiten dituzte.

Beti ere, Iruñetik bisitaldia egin ondoren San Ferminen in- guruko souvenir-ek dute arra- kasta gehien. Kamiseta eska-

tuenak, dagokion urteko kartel ofiziala agertzen dutenak dira. Prezioa 1.500 pezeta ingurukoa da eta batez ere Gazteluko pla- zako eta Estafeta kaleko denda anitzetan daude salgai. Eta, no- la ez, bestetako izaera-ikur na- gusia dena, zapi gorritxoa. Es- kaintza biziki zabala da. 1.000 pezeta inguru balio dute.

Zeozar apaintzeko eta bere- zia nahi izatekotan, erraldoiak eta kilikiak dira egokienak. Fes- tetako pertsonaia herrikoi hauek salgai daude tamaina eta prezio askotan. Erraldoien lau bikoteak eta kilikien bilduma osoak 25.000 pezeta inguru ba- lio du, irudi bakoitzeko bi mila hain juxtu. Badaude marmoli- naz zein eskaiolaz eginak. Az- kenik, Nafarroako patrioaren irudiak hiri barneko denda an- itzetako erakustokiak hornitzen ditu. Badaude marmolezkoak, eskaiolazkoak eta metaldezkoak. 5.000 pezetaren truke eros dai- tetzke gutxi gorabehera. Bada beste zenbait oroigarri erama- teko aukera ere. Nafarroako ar- doa eta likoreak, San Gregorio kaleko Leoz armadendan eros daitezkeen artisautza lanak edo Aznarez kapela denidako zapelak, esate baterako.

Souvenir-ak eskuratzeko eta aukeratzeko helbide ezagune- nak hauek dira: Orreaga Etorbideko Lola denda; Estafe- tan, Lange Etxea, Amalur eta Alicia souvenirs; Mercaderes karrikan, Etxebe denda; eta Gazteluko plazan, Astrain bitxi- denda.

### Ziria

• Motxorrosolo •

#### Dinamikoa


A NITZEN ABURUZ, GURE IZAERA DINAMIKOAREN ISLA ASTE honetan jasotakoa. Helburuak argi, tokian tokikoak ezartzen du ekinbidea. Batean zuri, bestean beltz, maiz asko- tan, ez ur, ez ardo. Dirudiena baino etsipengarriagoa jaso duguna. Guztiz finkaturik agertzen zaizkigunek dakarte era- bateko desadostasuna. Egoerak beharturik lan egiteko mol- dea alda badaiteke ere, goitik beherakoa nagusi gurean.

## Eva Mendia

PIRINIO FUNDAZIOKO INGURUMEN HEZIKETAKO ZUZENDARIA

## «Haurren bitartez gizarte osoa hezi nahi dugu»

2000. urteko urtarrilean Basoa proiektua abian jarri zuen Pirinio Fundazioak. Ingurumen heziketa bultzatzea da elkarte horren helburu nagusia, eta, horretarako, Pirinio inguruko herrietako haur eta irakasleekin egiten dute lan.



OSKAR MONTERO

**B**ARAÑAINEN HASI ZEN PIRINIO Fundazioa proiektuak garatzen, baina, Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarik gabe, Europak eskainitakoa hartu eta Pirinio aldera jo behar izan zuten taldekideek. Elkartearen lanaz mintzatu gara Eva Mendia kidearekin.

**■ Zer da Pirinio Fundazioa?**  
Era askotako jendea biltzen zuen lagun taldea ginen hasieran: biologoak, mendizaleak... Taldea sortu zen ideia baten inguruan: nola lor genezakeen ikastetxeetan ingurumen heziketa gauzatzeko, irakasleei gehiegi kostatu gabe. Pentsatu genuen ikastetxeetan babarrunak lantzen dituzten bezala, gaztaina edo ezkurrekin gauza bera egin genezakeela, zuhaitzak sortu eta gero mendira eramanez, eta, aldi berean, gauza asko ikasi. Hori izan zen abiapuntua. Barañainen jarri genuen lehendabizi martxan, eta oso erantzun ona izaten ari zela ikusi genuenez, diru laguntzak eskatu genituen. Nafarroako Gobernuak ez zigun deus ere eman, eta azkenean Europako laguntza jaso genuen. Baina laguntza hori lortzeko, garatzeko bidean dagoen ingurumen proiektua; haatik etorri ginen Pirinio aldera.

**■ Edozeini zabalduzake taldea da zuena?**

Bai. Gure helburuetako bat da ikerkuntza eta ingurumen heziketa bultzatzea; gehienok dohainik egiten dugu lan, baina diru laguntzak jaso ahala jendea kontratatatu egiten dugu gure

proiektuak martxan jartzeko. Bertako jendea kontratatzen dugu proiektuan integratzeko.

**■ Zuen kezka nagusia, beraz, ingurumen heziketa da, haurrei zuzendua?**

Ez bakarrik haurrei; gizarte osoari zuzenduta. Kontua da kontratatzen garela haurrak direla etorkizuna eta nahiko erraza dela haiekin lan egitea. Duela urte batzuk pentsaezina zen Pirinioetako ikastetxeetan ingurumen heziketa hitza aipatzea ere; Saiatzen ari gara lan diskretu egiten, bertako jendea integratzen eta ingurumenari buruzko ideia zabalago bat plazaratzen.

**■ Hezkuntza sistemak bete beharko lukeen hutsunea betetzen ari al zarete?**

Hala da. Teorian, LOGSEk dio ingurumen heziketa gauzatu behar dela ikastetxeetan, baina, praktikan, Nafarroako Gobernuak ez die ikastetxeei behar duten laguntza eskaintzen. Eta Pirinio aldean are okerragoa da egoera, beste inguruetan baino baliabide gutxiago dute. Guk egin duguna izan da haurrekin lan egin, baina irakasleen bitartez. Horretarako, irakasleei prestakuntza teorikoa eman diegu ikastetxeetan bertan, Basoa proiektuaren barnean.

**■ Zer da Basoa proiektua?**

Proiektu teoriko eta praktikoa da. Irakasleen hutsuneak betetzen saiatzen gara teoriari dago-kionez, eta, praktikaren esparruan, ariketa berezia proposatzen diegu: udazkenean haziak bildu, bertako zuhaitz eta zuhaix-

«Duela urte batzuk pentsaezina zen Pirinioetako ikastetxeetan ingurumen heziketa aipatzea ere; gu saiatzen ari gara lan diskretu egiten, bertako jendea integratzen eta ingurumenari buruzko ideia zabalago bat plazaratzen»

kenak, ikastetxean erein eta landarea nola sortzen den ikusi ondoren, mendian landatu. Horren guztiaren inguruan sortzen dira ingurumen heziketarekin lotuta dauden hainbat gai.

**■ Material didaktikoa ere prestatu duzue; hutsune handia dago alor horretan?**

Materiala egon badago, baina ez dago testuinguru jakin batera egokituta. Guk bertako zuhaitz

eta zuhaixkak landatzeko eta eza-gutzeko eskuliburua egin dugu.

**■ Zer nolako indarra izan dezake horrelako ekimen baten, gero erakunde publikoen aldetik inplikaziorik ez badago?**

Lehenik eta behin, argitu behar dut ez garela salaketa egiteko sortu baizik eta lan egiteko. Baina azpimarratzeko da Nafarroako Gobernuak beti hitz politikak izan di-

tuela guretzat, baina inoiz ez digula inolako diru laguntzarik eman. Gure proiektua garatzeko baime-na eman digute, baina, ez, ordea, diru laguntzarik. Eta erakundeen inplikazioa beharrezkoa da ingurumen heziketa bultzatzeko.

**■ Zuen proiektua beste inguruetara zabaltzeko asmo-rik al duzue?**

Oraingo ez; oraingo gure asmo nagusia da hasitako lanari jarraipena ematea. Baina diru laguntzak jasotzeko dagoen zailtasuna ikusita, gogor egin beharko dugu lan. Azpimarratu nahi dut berriz ere Pirinio aldeko irakasle- en egoera oso zaila dela, baliabide gutxi dutelako.

→ Edurne Elizondo

## 500 lagun Basoa proiektuan

AGOITZ, GARRALDA, Ezkaroze, Nabaskoze, Otsagi, Luzaide eta Erronkariko eskoletako 63 irakasle eta 431 ikasle parte hartu dute aurtengo Pirinio Fundazioaren Basoa proiektuan. Proiektu horren

barnean egindako ekitaldien artean, zuhaitzak landatu egin zituzten martxoan, haziak mendian jaso eta ikastetxean zuhaitza sortzen ikusi ondoren.

Garralda eta Luzaidekoak euren kabuz aritu dira landaketak egiten, iaz ere proiektuan parte hartu



EGUNKARIA

zutelako. Ezkaroze, Nabaskoze eta Otsagiko ikasleek, berriz, ibaien inguruan egin dituzte landaketak, eta ibaiertzak ere aztertu dituzte. Erronkarikoek, azkenik, bioaniztasuna landu dute. Irakasle eta ikasleen partehartzea «handia» izan dela azpimarratu du Pirinio Fundazioeko kide Eva Mendiak. «Belaualdi berriak indartsu datoz», azpimarratu du. Ingurumenaren alde erein duten hazia garatzen uztea da gakoa.



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Belateko tunelak

Xelebreak dira gure foru lurraldeko agintariak. Belateko tunelak egin eta hura sekulako obra zela hasi ziren esaka. Ondoren, behar bezalako inaugurazio ekitaldia antolatu zuten. Espainiako errege-erreginak ekarri zituzten, obra izugarriak hori eta gehiago merezi zuelakoan. Diputazioak liburua ere argitaratu zuen, txukun eta dotore, obraren eta errege-erreginaren bisitaldiaren oroimena betiko idatzirik gelditi zedin.

Tunelak egiten ari zirela, etengabeko matraka jasan behar izan genuen. Lopez kontseilariak, Belaten horrelako obra bat egitea zaila izanagatik, dena edeki egiten ari zela adierazi zigun. Are gehiago, bibotedun luzea hura mundu osoko teknikariendako ereduia izanen zelakoan zegoen. Europako toki anitzetan horiek baino zailagoak egin direla pentsatzen genuenona okerreko iritzia omen zen. Nafarro, berriro ere, harritura utziko genituen gainerako guztiak. Badakizue: mundua hondoratzen bada, hondora dadila. Nafarroa beti aitzina.

Eta, tamalez, Lopezek arrazoia zuen. Pena bakarra harriduraren arrazoia da. Izan ere, hasiera-hasieratik frogatu ahal izan genuenez, obra hura garaiko guztiak bezalatsu egin zen: txapuz hutsa. Txapuz hutsa bertzerik ez? Auskalo. ETak, zorionez, obra mehatxatu ez zuenez, txapuzatik lapurretara salto egitea ez zen Irurtzun eta Andoainen artekoan bezain erraza izanen. Baina gauza bat dago argi: obra hura iruzurra izan zela. Nafar guztiok eginiko iruzurra.

Orain dela zazpi urteko kontuak ordaintzen ari gara eta, itxura guztien arabera, ordaintzen segituko dugu, auskalo noiz arte. Azken urteotan ordaindu diren milioiei (eta ordaindu beharko direnei) tunelen itxierak sorturiko kaltea gehitu behar zaie. Egun batean bide bakarrek tunelak bikoiztu behar direla erranen digute, karril bakarrek tunela egitea ergelkeria hutsa izan zelako.

Hori dena larria bada ere, badugu kontsolatzeko modua. Hor dago duela zazpi urteko liburua, argazki ederrez hornitua. Hortxe dago kontseilaria, poz-pozik. Eta Juanito erregea. Eta protokoloko arduradunak erotuta, berokirik gabeko erregina hozten ari zelako. Shakespearek errana genekien nafarrok mundua harriturik utziko genuela.

## gure aukerak

### ANTZERKIA

- **Mutiloagoiti:** Asteartean, Taun Taun taldeak Txio txioka haurrentzako antzezlanataularatuko du, Kultur Etxeko auditorioan, 17:00etan.
- **Berriozar:** Ostegunean, Hortzuga taldeak Hortzisauroiak kale antzezlanata eskainiko du, 17:30ean, San Esteban plazatik abiatuta.

### ZINEMA

- **Tafalla:** Bihar eta etzi, 18:00etan, Marco Antonio, erreskatea Hong Kongen haurrentzako filma pantailaratuko dute, Cinema Españolen.
- **Tafalla:** Astelehenean eta asteartean, 18:00etan, Karamarro uhartera filma eskainiko dute, Cinema Españolen.

### TXAPELKETAK

- **Nafarroa:** Orreaga bilguneak Nafarroako elkartearen arteko bigarren mus txapelketa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek hilaren 20a arteko epea dute. Informazioa eta izen ematea 948-130707 telefonoan (arratsalde).

### LEHIAKETAK

- **Barañain:** Bestetarako kartelak aurkezteko epea asteartean akituko da. Gehienez ere hiru lan aurkezten ahal dira, eta lanek, halaber, 75 zentimetroko altuera eta 50 zentimetroko zabalera izan behar dute. Honako testuak agertu behar du lanean: «Fiestas de Barañain del 27 de junio al 1 de julio de 2001; Barañaingo festak 2001eko ekainaren 27tik uztailaren 1era». Informazio gehiago 948-185310 telefonoan edo Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Arrosadiako bestetarako kartelak hilaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira, Sorgintze tabernan (Gelbenzu, 35). Lanak koloreetan izanen dira eta,

gehienez, 29,7 x 42 zentimetrokoak (DIN A-3). Goi-buruan ondoko testua paratuko da: «Arrosadiako festak 2001eko ekainaren 1, 2 eta 3an; Fiestas de Arrosadia 1, 2 y 3 de junio de 2001».

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Karrikirik itzulpengintza eta soziolinguistika ikastaroak antolatu ditu. Matrikula hilaren 24a baino lehen egin behar da. Informazio gehiago 948-222589 telefonoan.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Sanferminetan gertatua euskarazko komiki lehiaketako erakusketa hilaren 19a arte izanen da ikusgai, Alegria de Iruña peñan.
- **Zizur Nagusia:** Fermin Diez de Uizurrin margolariaren lanak Kultur Etxean daude ikusgai, hilaren 22a arte; lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Keixeta artista gipuzkoarrek collage teknikaz eginiko

margolanen erakusketa hilaren 22a arte bisita daiteke, Molmar galerian (Curia, 18); lanegunetan, 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

- **Iruñea:** Diana Pardoren margolanak hilaren 28a arte ikus daitezke, Pintzel Galerian (Abejeras, 6); lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.
- **Iruñea:** Ezequiel Furginele argentinarraren Tecnica mixta erakusketa hilaren bukaera arte izanen da, Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42).

OSKAR MONTERO



### Herri baten isla

Korrika 12 Pirinioetako herri bateko errepide ispilu batean islaturik. Jende guti ikusten da, baina alai, eta kontent, eta gogotsu; Pirinioetako jendearen isla da hori, ez Korrikarena, euskararen aldeko lasterketa jendetsua izan baita. Korrika Euskal Herriaren isla da. Ongi pentsatuz gero, ez dirudi zentzuzko kontua denik Euskal Herriko txandakako lasterketa egitea. Eromena da, euskal herritarren tamainako eromena. Euskarak egoera eskizofrenikoa baitu toki anitzetan, eta gaitza sendatzeko egiten da Korrika. Euskal Herria bera ere eskizofrenikoa da. Baina hura sendatzeko erabiltzen diren botikak are harri-garriagoak dira, zorabiatzeko modukoak. Errealitatea den modukoa da, ispilua da errealitatea ganbil eta itxuragabe egiten duena. Kontua da zeini begiratu nahi ote diogun, errealitateari edo ispiluari.